ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2020ko abuztuaren 12a, asteazkena • 90 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

# BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Zitazioa egitea "A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen titularrei, okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, adostasunez balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 21eko 334/2019 Erabakiaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion "A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua"k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari, eta jendaurrean arri zen.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren 2020ko otsailaren 25eko 116/2020 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Emandako ahalmenez baliatuz, Arabako Foru Aldundiak dei egin zien aipatutako proiektuak eragindako eskubideen titularrei, okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, adostasunez balio justua ezartzeko aktak egiteko.

Egintza hori 2020ko irailaren 21an, 10:00etatik aurrera izango da, Alegría-Dulantzi Udaletxetako lokaletan; interesdunei horren berri emango zaie, banakako jakinarazpena bidaliz, eta argitara emango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.4 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Egintza horretara interesdunak berak joan beharko dira, edo haien izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsona bat, haien ordezkari, beren titulartasunaren egiaztagiriak ekarriz (eskritura publikoak, kontratu pribatuak eta errentamendu kontratuak, hirugarrenen fitxa eta abar); gainera, egoki baderitzote, profesionalen batek lagunduta agertu ahal izango dira, kostuak beren gain direla.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*
*CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ*

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila**
**Departamento de Infraestructuras Viarias y Movilidad**

A-3112 ERREPIDEA EGILETAN, 13,10 KM-AREN ETA 13,47 KM-AREN ARTEAN, EGOKITU ETA TRAZADURA HOBETZEKO PROIEKTUA
PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO Y MEJORA DE TRAZADO DE LA CARRETERA A-3112, ENTRE EL P.K. 13,10 Y EL P.K. 13,47, EN EGILETA

Esp./Expte. 2019/8

| FINKAREN ZK. | TITULARRAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | UDALERRIA | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA $m^2$ | | | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLIGONOA | LURZATIA | | | | BEHIN-BETIKOA | ALDI BATERAKOA | ZORTASUNA | | |
| | | DATOS CATASTRALES | | | | | SUPERFICIE AFECTADA $m^2$ | | | | |
| Nº FINCA | NOMBRE DEL TITULAR | POLÍGONO | PARCELA | TERMINO MUNICIPAL | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE | DÍA | HORA |
| 3/000 | EPIFANIA LOPEZ DE ABECHUCO BEITIA | 2 | 129 | ALEGRIA-DULANTZI | BARATZEA / HUERTA | | 105 | | | 21/9/20 | 10:00 |
| 5/000 | M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICUÑA | 2 | 124 | ALEGRIA-DULANTZI | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADÍO | | 870 | | | 21/9/20 | 10:45 |
| 6/000 | M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICUÑA<br>M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICUÑA | 2 | 123 | ALEGRIA-DULANTZI | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADÍO | | 10 | | | 21/9/20 | 10:45 |
| 1/000 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA | 2 | 92 | ALEGRIA-DULANTZI | LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADÍO | | 438 | | | 21/9/20 | 12:30 |
| 2/000 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA | 2 | 134 | ALEGRIA-DULANTZI | LARREA / PASTIZAL | | 966 | | | 21/9/20 | 12:30 |
| 4/000 | JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA | 2 | 135 | ALEGRIA-DULANTZI | LARREA / PASTIZAL | | 840,76 | | | 21/9/20 | 12:30 |



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.08.12 05:33:13 Z